

## LOURDES TXIKIKOA, KASUALIATEA OTE?

Joan den astean HARITZALDE Naturzaleen Elkartek gogor salatu zuen Ekintza Ikastola gainean buruturiko zuhaitz mozketa bortitza. Egunotan informazioa biltzen aritu gara gaiaren inguruan eta datuok beldurgarri bezain kezkarriak dira. **Soilketak ia 2,5 ha hartzen ditu; guztira kilometro inguruko luzeera duten pistak ireki dituzte mendiaren lurrazala urratuz; basoa Donostiako Planeamenduak babestuta zegoen zuen balioarengatik; ehun urtetik gorako haritzak (bertakoak) moztu dituzte; higadura eta lurzoru galera-arrisku bizian gelditu da mendi magala; faunaren ugal garaian, bete-betean, burutu dute; paiasaian sortutako inpaktua ikaragarria da, Kontxatik bertatik ikusten delarik.** Kaltetutako eremua landa-lurrak dira, ez hirikoak, beraz, mendien kudeaketa daraman Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu behar zuen, baina horren berririk ere ez zuen. Beraz, ez zituen dagozkion baimenak eginiko triskantza egiteko.

### Arriskuen inguruan

Antza denez, Ekintza Ikastolatik urteak omen zeramatzaten gainean duten magaletik zetorkien arriskua salatuz. Dirudenez, tarteka menditik ura, lurra, harriak eta adarrak erortzen zitzaizkien eta umeekin gerta zitekeen istripu baten beldur ziren. Esan beharra dago Ikastolaren kokapena ez dela egokiena eta aipatutako arriskuak datozela bere garaian hautatutako kokapen horretatik bertatik eta ikastola eraikitzeke eginiko mendi mozketa hartatik. Edozein kasutan ere, egungo egoera da dena eta Haritzaldetik zegoen arriskua zinez aitortzen dugu. **Pertsonen segurtasuna bermatzearekin bat gatoz, erabat, baina ez zaigu inolaz ere iruditzen gertatutakoa bide horretatik doanik.** Gauza bat da erortzeko arriskua duten zuhaitzak eta adarrak moztea edo kimatzea, Ikastolaren atzekaldeko maldaren behe-aldean garbiketa eta egonkortze lanak egitea eta beste bat buruturiko triskantza, zeinek lubizi arriskua eta harri zein lurren erorketa-arriskua emendatu baino ez baitu egin. **Lursail osoa soiltzera joan da, ikastolatik ia 100 mra zeuden zuhaitzak ebakiz.** Arbol horiek, magal osoko ia guztiak egia esan, sekula ez ziren eroriko ikastolaren gainean eta, **aldiz, lurra eutsi egiten zuten lubiziak ekidinez.** Beste datu bat, helburua arriskuak saihestea baldin bazen eta horren aitzakian aste santuko oporrak erabili badituzte lanak gauzatzearen arriskua ere ekiditeko, nola liteke makina astunak lanean aritzea magalean umeak, oporretatik bueltan, eskolan zeuden bitartean? Hondeamakina eta arrastradorea lanean ikusi genituen umeak ikastolako patioan jolasean ari ziren bitartean, ageriko inongo babes-neurririk gabe. Hura bai izan zen arduragabekeria, lanen ondorioz harri handiak erortzeko arriskua berebizikoa baitzen!

### Donostiako Udalaren erantzunkizun zuzena

Zoritxarrez, **badirudi Donostiako Udala, Hirigintza Saila hain zuzen ere, izan dela** neurri batean egoera penagarri horren **eragile zuzena**. Izan ere, arestian aipatu bezala, aspaldikoak omen ziren Ekintza Ikastolaren kezkak eta kexuak. Hortaz, agi denez, Hirigintzako zinegotzia den **Enrique Ramos jaunak aginduta** eta Eraikuntza eta Birgaikuntzako Lege eta Administrazio Atalaren Buruak sinatuta, **lursailaren jabeei Ikastolaren atzekaldeko magalean, 50 bat metroko zabalera duen gerriko batean zuhaitzak mozteko agindua luzatu zitzaien**, umeen opor-garaian burutzekoa zena. **Ulertezina da nola eman den, lursaila Planeamenduak babesten zuela kontuan harturik.** Are gutxiago ulertzen da baldintzarik jarri ez izana eta egitekoak ziren lanen plangintzarik eskatu ez izana. Zergatik 50 metro inguru eta ez 40 edo 60? Non daude agindu horri

euskarri eman beharko lioketen txosten tekniko eta juridikoak? Inongo momentutan hartu beharreko neurrien inguruan xehetasunik eman al ziren? **Landa eremua bada, zergatik ez zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi?** Donostiako Udalak agindu ez zehatza eman zien jabeai, baldintzarik gabekoa eta haien betebeharrak gogorarazi gabe. **Gainera horren gainean ez zuen inolako zainketarik aurreikusi.** Beste behin ere, herritarrei esker jakin dugu basakeri horrena. Tamalez, berandu. Ondorioz, Udal Ingurumen Sailak lanak gelditu zituenerako soilketa ia amaituta zegoen eta kalte nagusia burutua zen. Azkenean, **arriskua gutxitzearen aitzakian sarraskia gertatu da eta orain lubizi arriskua askoz handiagoa da.**

### **Kasualitatea ote, ala susmo txarra hartu behar diogu?**

Udalak eta jabeek argugabekeriz jokatu dute? Ezgaitasun kontua da ala gertatutakoari usain txarra hartu behar diogu? Auzokide batzuek esanda, BBVA ei zen jabea eta obra inguruko baten batek esanda, “lursailen eraikitze baimena bazuten”. Donostiako Udaleko Hirigintza Sailatik Sociedad de Ingeniería, Desarrollos Urbanísticos y Promociones S.L. Izeneko enpresari eman zioten zuhaitzak mozteko agindua. Hirigintzako Obrak eta Proiektuak tarte, BBVA eta “Desarrollos Urbanísticos y Promociones” osagai sendoak dira susmo txarrak hartzeko gaiari eta ez da harrizkoa esamesak eta zurrumurruak zabaltzen hasi izana. Sinestu nahi dugu kasualitate eta ardagabekeri sorta baten ondorioa izan dela, hura ere oso larria. Edozein kasutan ere Udalaren ardura eta inplikazioa garbia da eta ondorioak egotea, barne espediente zigortzaile eta dimisio edota karguetatik kentzeak egotea espero dugu. Dena den, ezin dugu ulertu zergatik eraman den Hirigintzatik eta ez Ingurumenetik edota Hiri Mantenimendutik, eta zergatik ez da haiekin ere kontatu ekintza aurrera eramateko garaian. Era berean ez dugu ulertzen Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Eremuko Departamentuari ezertxo ere kontsultatu edo komunikatu ez izana. Horrek guztiak zer pentsatu ematen du.

### **Haritzalde eskatzen duena.**

- 1. Mozketa behin betiko bertan behera uztea eta magala aurtengo neguan (abenduan) bertan landatzea** bertako hazitik etorritako zuhaitzak erabiliz (besteak beste haritzak, lizarrak, gereziondoak, gaztainondoak, astigarrak, erramuak, urritzak, otsolizarrak, makatzak, sagarminak eta gorostiak erabiliz).
- 2. Urratutako pistak ahalik eta azkarren lehengoratztea** lurra berreskuratuz eta finkatuz (jakina, landatu aurretik).
- 3. Ikastolak duen lurjauzi arriskua murrizteko dagokion azterketa eta proiektua gauzatzea,** betiere magal hori babestuta dagoela kontuan harturik.
- 4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen Departamentutik zein Donostiako Udalaren aldetik zigor espediente bana irekitzea eta lursailaren jabeai zigor eredugarria ezartzea.** Ez dadila izan ateratako egurraren balioa baino txikiagoa, ezta parekoa, horrelakorik errepikatu ez daitezen.
- 5. Egun lursailak duen babes-maila bere horretan mantentzea.**
- 6. Enrique Ramos, Hirigintzako Zinegotziaren dimisioa.** Saila horren baitan barne-ikerketa irekitzea eta ardurak argitzea eta inplikaturiko pertsonen espediente zigortzailea irekitzea edota kargutik kentzea.
- 7. Fiskaltzari balizko delituak ikertzea.**



Donostian, 2017ko maiatzaren 2an.

Harremanetarako: 609 420 438  
[naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org)  
[www.haritzalde.org](http://www.haritzalde.org)